141. zenbakia - 2014ko iraila

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

URRITZA AISIALDI TALDEA

] KOSTALDE BALEADA EKIMENA
EÑAUT ELORRIETA BALENCIAGAN]

Argazkia: Amaxkar.

Txapeldunak

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Venta de equipos informáticos
Mantenimiento
Academia de informática
Diseño de páginas web
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz

OSTOLAZA EDARITEGIA
kaxuelitak eta plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
Ionja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

SALA NORT
CONSERVAS ARTESANAS de GETARIA
SALANORT
Surimi angula 220gr-ko
6 pote erosteagatik
%20 deskontua egingo da
Kale nagusia 22 Getaria 943 140 624
Arma plaza Hondarribia 943 646 187
ON LINE DENDA
www.salanort.com

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak
Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86
aranola

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

HARRALDE
GETARIA
NAGUSIA,17
☎ 14 07 04

Nahiz eta play off-a
ez da izan oparo
baina liga txapeldun
geldituaz klaro
herri dena zuetaz
oso harro dago.

Doinua: Bertsuak jarri dizkiat

AUPA GETARIA !!!

artzape

141. zenbakia

2014ko iraila

3 / Bertsotan

4 / Inglish pitinglix txokoa

5 / Txapakalezka - Gutunak - Artzapetik begira

6 -7 / Zer berri - Bi hitzetan

8-11 / Erreportajea - Arraun taldea

12-15 / Argazki txokoa:

Salbatoreak - Elkanoren lehorreratzea

16-17 / Elkarrizketa: Urritza Aisialdi Taldea

18 / Historiaren katebegiak

19 / Herriko toponimia - Txikiegia agian

20 / Iritzia

21 / Elan- Euskadi

22 / Agenda - Denborapasak

22 / Herriko gutixiak - Telefono interesgarriak - Farmaziko guardiak

8-11

12-15 **16-17**

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

[argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea [erredakzioa] Izaskun Urbieta eta Monika Uzkiza
[lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Izaskun Larrañaga, Nerea Kamio, Josune Urresti, Jon Ander de la Hoz, Alain Inza, Unai Mateos, Haritz Esteban, Amaia Irazabal, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika, Getaiko Gaztetxea, Iturzaeta Herri Eskola, Elan-Euskadi GKE, Markos Aizpurua, Andres Alberdi eta Erein kultur zerbitzuak [hilabete honetako kolaboratzaileak] Joxi Erauskin, Uxoa Irigoien eta Xabi Insausti.
[argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape [inprimaketa] Gertu [tirada] 1170 ale
[lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

inglix pitinglix txokoa / Uxoa Irigoien

Hello artzapezaleok! Hementxe nator txoko berri batekin: Inglix- pitinglix. Bertan oinarrizko ingeles hiztegiya ikasteko aukera izango dezue eta baita egoera desberdinetan oso erabilgarriyak izango zaizkizuen esamoldiak ere. Aireportuan maleta galdu zaigula nola esplikau gaztelaniaz ez dakin azafatuai? Ba horrelako beste mila momentutan oinarrizko ingeles maila izateko jarri martxan txoko honekin!!

Hilabete honetan, nahizta uda bukatzen eon, udai buruzkua izangoa,Euskal Herriyan irailare dotoria ite du ta!

SUMMER- UDA

Vocabulary

Euskara	English	Pronunciation
Beach	Bitx	Hondartza
Sun	San	Eguzkia
Swimming suit	Suiminsut	Bainujantzia
Towel	Tauel	Toaila
Flip flops	Flip flops	Txankletak
Sunglasses	Sanglasis	Eguzkitako betaurrekoak
Ice cream	Aizkrim	Izozkia
Sea	Sii	Itsasoa
Terrace	Terraz	Terraza

Esamoldeak

English	Pronunciation	Euskara
Let´s go to the beach!	Lets gou tu de bitx!	Goazen hondartzara!
The ice cream is delicious!	De aiz krim is delixius!	Izozkia oso goxoa dago!
Let´s go for a swim!	Lets gou for a suim!	Goazen uretara!
Play at the sea shore	Plei at de sii xor	Jolastu urertzean
Be careful with the sun	Bi kerful uiz de san	Kontuz eguzkiarekin
Would you like a cold beer?	Wud yu laik a kould bier?	Nahi al duzu garagardo hotza?
Help me please!	Jelp mi plis!	Lagundu mesedez!
I´ll invite you for dinner	Ail inbait yu for diner	Afaritara gonbidatuko zaitut
Let´s party!	Lets parti	Goazen parranda!

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK
IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

ITXASPE TABERNA

txapakalezka

Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika

Denboraren makinan

Garai ilunetako lehorreratzean

Salbatoretan, lehorreratzearen inguruko glamour, soineko berri, jendetza eta Hollywood-eko izar artean ginela, elkarri begiratu eta ondorengo galdera egin genuen: *"Hau horrela izan ote dek beti? Nolakoak ziren lehengo lehorreratzeak?"* Hori jakiteko modu desberdinak egon arren, ez genuen bi aldiz pentsatu beharrik izan: *"Biderako txorizo panplonan bokadilo batzuk prestatu, ta goazen aspaldiko partez denboran makinan txango bat egitera!"*.

Hasieratik oztopoak topatu genituen, ordea: kotxea kostata lortu genuen arrankatzea; bidaia turbulentzia artean egin behar izan genuen, erdi zorabiatuta… Eta, hori gutxi balitz, makina geratu eta ateak ireki zirenean, *"piperpotoz"* beteriko balkoien artean aurkitu ginen. *" Hau ez dek Getaia! Ezin dik izan! Kotxia Gotzonenea eraman beharko diagu konpontzea!"*. Baina, bai, sinestea kosta arren, Getarian ginen.

Juxtu lehorreratzearen eguna zen, nahiko jende zebilen, baina giro arraro xamarra arnasten zen. Kalean behera, hasieran ezagutu ez genuen gizon txiki (eta lotsagabe) batekin gurutzatu ginen. Txapel barregarri bat zeraman, eta kankailuz inguratuta zioan. Egoera ulertu nahian, herritarrei galdetzen saiatu ginen. Baina inork ez zigun erantzun nahi. Batzuk isilik geratzen ziren, besteek ihes egiten zuten… Bat-batean, kantoiko itzal batek kontuz ibiltzeko, eta euskaraz ez hitz egiteko esan zigun…

Moilara jaistean, gure harridura handiagotu egin zen. Eta ez Elkanok lehorra ukitzean lurrari musurik eman ez ziolako, ezta tripulazioa betiko pelukekin zihoalako… Zintzilikatuta zegoen pankarta erraldoiagatik eta militarren presentziagatik baizik. Eta hasierako gizon ñañarro hura Franco general kolpista zela konturatzeagatik! 1940ko hamarkadan ginen, frankismoaren urte garratzetan, eta gerra ostean getariar asko (*"rojos separatistas"* gisara deituak) herritik kanporatuak izan ziren. Beste asko Franco, bere Azor yatean, Getariara etortzen zen bakoitzean espetxeratuak izaten ziren. Eta txaloka ari ziren herritar asko, beldurraren eta mehatxuaren eraginez ari baziren ere, beste batzuk gogotsu ari ziren txaloka…

"Hi! Inguruko gizon horiek guri begira zeudek etengabe!". *"Aibala! Euskal selekzioan kamisetakin hago ta"*. *"Ze esatek?"*. Konturatzerako, militar tropel bat gure atzetik genuen! Eskerrak pretenporada txukuna eginak ginela, eta korrika saio ederra botata, denboran makinara sartu eta ziztu bizian ihes egitea lortu genuela! Hori bai, arnasari buelta ematen ari ginela, leihoak jaitsi, eta atzean geratu ziren eskopetadun figura haiei oihu egiteko astia izan genuen: *"Viva la Republicaaaaaaaaaa!!!!"*. Bueltako bidaian ez zen turbulentziarik izan, baina hiruok barru txarrarekin itzuli ginen, oso barru eta sentsazio txarrarekin… Iragana ezin dugu aldatu, baina gure esku dago etorkizunean inoiz gehiago halakorik ez gertatzea lortzea. Zor diegu gure arbasoei.

artzapetik begira

Xabi Insausti

Lurra eta haizea

Bia da bizitzaren zenbakia. Bata hilarena. Bizitza da batetik bestera mugimendua. Batean ezin dugu bizi. Bi hanka dauzkagu denok. Bizitzeko komeni da hanka bat lurrean jartzea, bestea airean. Lurra eta haizea, oraina eta etorkizuna, arra eta emea. Eskizofrenikoak gara. Baina ez denok berdin. Proportzioa da interesgarria.

Batzuk saiatzen dira bi hankak lurrean jartzen; orainean, eta beste batzuk airean; etorkizunean. Orainean, lurrean, bakarrik jartzea saiatzen duten horiek gaurkoa besterik nahi dute. Kapitalismoaren jarrera hori da.

Kapitalismoak betirakoa dela pentsa tzen du. Ez dago beste etorkizunik. Horregatik hain nerbioso jartzen dira, norbaitek ("Ahal dugu"-k adibidez) bere betiko existentzia kolokan jartzen duenean.

Gaurko mundua eta gizartea gure erreferentzia eta abiapuntua da: hori da lurrean hanka bat edukitzea. Baina ez gara mundu honetakoak. Etorkizuna da gure patua: aurrera joatea, etorkizuna gure zain dago. Eta etorkizunak nola gu hartu, lagun edo etsai bezala, gure esku dago.

Lurra eta Haizea, oraina eta etorkizuna lotuta daude. Gaurkoa ukatzen duenak etorkizuna ere ukatzen du. Etorkizuna prestatu nahi badugu, prestatu behar dugu gaurkoa. Lurra zainduz gero, etorkizuna zaintzen dugu. Bizitzaren sekretua hemen datza.

Krisiak erakutsi digu kapitalismoa ez dela azken hitza. Baina kapitalismoaren beste hori ez da etorriko bere kabuz.

Nazismoa bukatu da, stalinismoa ere. Orain kapitalismoa bakarrik falta da.

Haizean usaintzen da etorkizuna. Baina beti hanka bat lurrean.

Artzapeko urteko kuota urrian pasako dugu

Urrian urteko kuota pasako dugunez kontu korrontea edo banketxez aldatu baduzue jarri gurekin harremanetan datuak aldatzeko: artzape@topagunea.com helbide elektronikoan, 943 000 548 telefonora deituta edo/eta Txeruko postontzian datu berriak utziz.

Eñaut Elorrietaren kontzertua azaroak 14ean



Artzape Euskara Elkartearen eskutik, eta Cristobal Balenciaga Museoaren eta Getariako Udalaren laguntzarekin, datorren azaroak 14ean Eñaut Elorrietaren kontzertua izango da Balenciaga museoan. "Deserriko kantak" bakarkako lana aurkeztuko du lehendabiziko aldiz Getarian abeslariak. Gaueko 22:00etan hasiko da emanaldia eta Eñaut berak aurreratu digunez sorpresa batzuk egongo dira.

Sarrerak urrian jarriko dira salgai.

Kostalde Baleada ekimena egingo da urriaren 12an

Kostalde Baleada ibilaldi kultural eta gastronomikoa lotzen dituen ekimena da. Jatorria Iparraldean du, Angelun zehazki, eta bertako "Ibaialde" taldeak eramaten du aurrera duela hiru urtetik hona. Hendaia eta Angelu lotzen duen jaia da Kostalde Baleada, eta ibilbidearen helburua euskara sustatzea da.

Lehenengo aldiz Hegoaldera ekarri nahi izan dute ekimena. Hala, Zumaian hasi eta Getaria, Zarautz eta Orion barrena, azkenik Zarautzen bukatzeko, ibilbidea egingo da urriaren 12an. Geldialdi bakoitzean itsas ondarearen zatitxo bat erakutsiko dute. Irteera goizeko 08:30ak aldera emango da Zumaian eta Getariara 10:00ak aldera iritsiko dira. Bertan, Getariako Udalak, Getariako Arraun Elkarteak eta hainbat dendek antolatuta jatekoa eta edatekoa egongo da. Izen ematea internet bidez egin edota Maisor saltokian eman daiteke. Informazio gehiago jasotzeko eta izen emateko www.kostaldebaleada.com webgunera jo daiteke.

Martxan da "Katukale" taldea

"Katukale" irakurle-taldeak laugarren ikasturteari ekin zion irailaren 25ean Lander Garro idazlearen bisitarekin. Ez zen baina ikasturte honetako bisita bakarra izan. Hurrengo hilabeteetan beste idazle euskaldun batzuk ere izango baitira beraien liburuei buruz hitz egin eta hausnartzeko. Uxue Alberdiren gidaritzapean, aurreko hiru ikasturteetan 30 liburu landu dituzte taldean, eta 15 idazle bertaratu dira euren lanei buruz solas egitera. Gaur egun 15 lagunetik gora biltzen dira hilero, eta literaturaz eta literaturatik abiatuta sortzen zaien beste hamaika gairi buruz jarduten dira.

Hauek dira hurrengo hilabeteetan irakurri behar diren liburuen zerrenda eta biltzeko datak:

Urriak 30:
Sunset park.
Paul Auster.
Azaroak 27:
Gauzen presentzia.
Pablo Sastrerekin.
Abenduak 18:
Muskuiluak afaltzeko.
Birgit Vanderbeke.
Urtarrilak 29:
Erraiak.
Danele Sarriugarterekin.
Otsailak 26:
Inon ez, inoiz ez.
Iban Zaldua.
Martxoak 26:
Amaren heriotzak libreago egin ninduen.
Mari Luz Estebanekin.
Apirilak 30:
Otto Pette.
Andu Lertxundi.
Maiatzak 28:
Lagun armatua.
P. Elser eta E. Matauko.
itzultzaileekin.
Ekainak 18:
Zorion handiegia.
Alice Munro.

Getaitri Triatloi Taldearen aurkezpena

Kaixo Getaiko kirol zaleok,
Getaiko triatloi taldea sortua izan da, urte askoan zarauztarren artean ezkutuan ibili ostean. Taldearen triatloi pertsonala iada martxan da, ironman distantzia izanik ere, lehen postuetan helmugaratzeko desira eta gogoa dugu ordea. Aurkezpen bat egiteko minutu bat eskatzen dizuegu, propagandaz lagundurik.

Talde moduan sortuak izan gara, talde irekia eta mugarik gabea, hots, kirol mota ezberdinetako kirolariak onartzen eta laguntzen ditugu. Triatloiaz gain, Triatloi federazioak hainbat kirol bereganatzen ditugu, hau dela eta federazioko segurua oso zabala da. Mendiko, elurretako, errepideko zein uretako kirolak babesten ditu, zentzu honetan, taldekideak ez du triatleta izan behar kontzeptuaren zentzu itxienean. Taldeak, modalitate asko barnebiltzen ditu, zuretzako dugu tokia.

Taldeak hainbat zentzutan lagunduko dio kirolariari, kirola praktikatzeko lagunak eta laguntza eskeini, erropak luzatu, federazioarekin izango duen erlazioa erraztu eta murriztu, materialen inguruko aholkuak eman eta kirola maitatzen lagundu. Martxan hasiak gara laguntza bila, instituzionalak zein enpresarialak. Aldeko erantzun gutxi

batzuk jaso ditugu, beraz, etorkizuna argiago dugu.

getaitri@gmail.com da kontaktua, interesa duen horrek mezu bat bidali besterik ez du, ez lotsarik izan. Gazte kuadrila bat gara lan taldean, Iñaki Ucin izanik lehendakaria. Bestetik, 20 gazte inguru topatu ditugu, taldeak badu jende handana oraingoz. Zure txanda da orain. Zure zain gaude. Urte hasieratik aurrera egingo ditugu federazioko fitxak, erropak ere garai horretan izango dira eskuragai. Laister antolatuko dugu lasterketaren bat Getarian, bolondresak ongi etorriak izango dira, guztiok gara bat eta.

Zatozte gurekin 42.195 km arte. Ondo ibili.

Getaitri Triatloi Taldea.

Juanjo Azpeitiari

Ez gara ohitzen eta ez gara ohituko, zein nekeza eta zein mingotsa den agur esatea gure aldamenean isil isilik, trukean ezer eskatu gabe, bere esku zegoen dena emanez aritu den lagun handi bati agur esatea. Adiorik ez, gero arte…. Diote batzuek, Non hago, zein larretan…. Dio abestiak. Gu zer esan ez dakigula geratu gaituk Juanjo.

Gogora ekarri nahi diagu Getariako Ezker Abertzaleari urte luzeetan apalki eta xumeki hik emandako ekarpena. Hiregana jotzen genian zerbait behar genuenean eta beti izaten genian hire laguntza. Harralde kultur elkartea sortu genuenean hor hintzen hire ekarpena egiten, herri bazkaria edo afaria edo delakoa antolatzen zenean ez huan atzera egiten. Txosnetan zerbait behar zenean, han hintzan hire laguntza ematen. Jai herritarrengan sinisten hualako, beti prest... eta horrela beti, inoiz uko egin gabe.

Horregatik asma ezina egiten zaigu joan haizela eta agur esatea. Getariako Ezker Abertzaleak zin egiten du hik amesten huan Euskal Herri independiente, sozialista eta euskaldun baten alde lanean jarraituko dugula, ez diagu hutsik egingo. Hik utzitako hutsunea bete-ezina izango da, baina hi eredu bezala jarriz gero eta gehiago izango gara. Ez da erraza izango baina lortuko dugu Juanjo. Hik eta hitarrak hori eta gehiago merezi duzue. Aurrera Bolie !!

Getariako Ezker Abertzalea.

Eurobarometroaren ingurumenaren gaineko inkestan jaso denez, ingurumena babestea garrantzitsua da europar gehienentzat.

Krisi ekonomikoa gorabehera, europarrok ingurumenarekiko dugun kezka ez du behera egin: ingurumenaren babesa garrantzitsutzat dutela adierazi dute, eta askorentzat gehiago egin liteke.

Gehiengo luze batek uste du baliabide naturalak eraginkor erabiltzeak eta ingurumena babesteak hazkunde ekonomikoa bultza dezakeela. Kezka handienak poluzioa, hondakin-ekoizpena eta baliabide naturalak ahitzea dira.

Herri-administrazioen gastuari eta inbertsioari dagokionez, uste da arreta handiagoa eskaini behar litzatekeela ingurumen-abantailei kostuei baino.

Gero eta herritar gehiago prest dago ingurumena kaltetzen ez duten produktuak erosteko, garestixeagoak izanagatik. Aldiz, poluitzaile handiek berek eragiten duten ingurumen-kaltea konpondu behar lukete. Ingurumen-arazoak konpontzeko modu eraginkorrena: arauak hausten dituztenei isun handiagoak ezartzea.

Ingurumena babestu nahi duten herritarrek hautemandako lehentasun nagusien artean daude hondakinak birziklatzeko moduan bereiztea, etxeko energia-kontsumoa murriztea eta garraiobide kolektiboak erabiltzea.

EBko herritarren %77a bat datoz Europako ingurumen-legedia beharrezkotzat jotzen, beren herrialdean ingurumena babesteko; arlo honetako erabakiak EB barruan bateratuta hartu behar direla, eta EBk izan behar lukeela beren herrialdean ingurumen-arauak betetzen diren egiaztatzeko eskumena. % 84k nahi dute EBren funts gehiago bideratzea ingurumena kaltetzen ez duten jardueretara eta ingurumena babestera.

Informazioa gehiago:
Tel. 943 896024 - www.ihobe.net
maizpuru@getaria.org

Harro egoteko modukoa

KAE 1 ligako txapeldun, mailaz igotzeko play off-a jokatu zuen irailaren 20an eta 21ean Esperantzak. Esperantza eta ilusio askorekin atera ziren bi estropadetan baina Meira galizarra izan zen hurrengo denboraldian TKEn jokatzeko txartela lortu zuen trainerua. Hala ere, azken urteetako denboraldirik arrakastatsuena bukatu berri dute; zaleek ongi gogoratuko duten denboraldia.

Play off-en aurretik hitz egin dugu Getariako Arraun Elkartea osatzen duten hainbat kiderekin. Hala nola, Eugenio Camio diruzainarekin, Gorka Etxeberria entrenatzailearekin eta benetako protagonistak diren lau arraunlariekin: Egoitz Mateos, Jon Ander de la Hoz, Gaizka Gorostiaga eta Ander Etxegoienekin. Gure helburua, denboraldi bikain honen laburpena eta azterketa egitea izan da, play off-eko emaitza alde batera utzita.

Izan ere, klub honek zerbait handia egin badu, harrobiko mutilekin KAE-1eko txapeldunak izatea da. "18 arraunlarietatik hamar getariarrak dira. Lau oriotar eta beste lau tolosarrek osatzen dute taldea. Kontuan hartu behar da 2.700 biztanleko herri bat dela Getaria, eta nahiz eta harrokeria iruditu, traineru batean hamar lagun getariarrak izatea handia da" esan du Eugeniok. Behe mailetan ere hainbat gazte izan ditu klubak. "Mutilen kasuan esaterako 5 jubenil, 12 kadete eta 6 infantil izan ditugu. Traineru nagusiak horrelako denboraldia eginda, pentsatzen dut hurrengo urterako jendea animatuko dela. Guk denentzat ateak irekita ditugu" aipatu du.
Baina plantilla motz geratu zaiela aitortu du Gorka Etxeberria entrenatzaileak. "Ez dugu plantilla handia izan, eta hori ere oztopo bat izan da. Mutil arinenak aldatzeko izan ditugu ordezkoak, baina erdiko jendea, handiagoak izaten direnak, falta izan zaizkigu. Gainera, arraunlarien lan orduekin ere arazoak izan ditugu entrenatzeko eta trainerua osatzeko".

"Sufritzen eduki ninduten"

"Hasiera nahiko zaila izan zen, kostatu egin zitzaigun taldea osatzea" kontatu du Gorkak. Horregatik, denboraldia hasiera batean esperotakoa baino dezente hobeagoa izan dela dio: "Ia martxoa arte ez dugu osatu taldea, eta noski ordura arte oso hilabete gogorrak izan dira, niretzako behintzat. Pare bat arraunlari berandu hasi ziren, baja garrantzitsua ere izan genuen eta noski horrek guztia eragin egiten du traineruaren hasierako martxan. Ni sufritzen eduki ninduten" adierazi du. Iaz ere denboraldi txukuna egin zuten eta aurten ere arazorik gabe jarraituko zutela pentsatzen zuen oriotarrak. "Nik ulertzen diet, azkenean gazteak dira eta arraunak asko lotzen du. Psikologikoki asko nekatu nintzen, eta asko ikasi dut hontatik. Zerbait esan behar badut, hasierako hilabeteak oso gogorrak izan zirela da".

Lesioen aldetik ere ez dute zorterik izan. "Nahiz eta lesio handirik ez izan, bi astekoak, astebetekoak… izan ditugu. Gainera, plantilla justua izanda eta lesio horiek edukita… fisikoki ez dizu uzten lanari jarraipen ona ematen. Baina beno, jarrera ona izan dute entrenatzen eta uretan" aipatu du. Arraunlarien jarrera goraipatu du Gorkak: "Jarrera ona izan dute entrenatzen, gainera ikusten genuen ontzia ondo zihoala uretan eta aurredenboraldiko testak ere oso ondo joan ziren".

Erregulartasuna, giltza

KAE 1 ligan 12 estropada jokatu dituzte getariarrek. Horietatik erdietan bigarren postuan geratu dira, eta guztira lau bandera lortu dituzte, ligarekin batera. "Nik beti esan diet arraunlariei estropadaz estropada joan behar ginela. Eta estropada onak egiten bagenituen, erregulartasunak berak jarriko zigula bere tokian. Eta pixka bat hori izan da, aurrera gehiegi begiratu gabe estropadaz estropada joatea. Gure gakoa hori izan da: gutxitan huts egitea. Eta zortea ere behar da" aipatu du Gorkak.

Izan ere zorteak ihes egin zien aurreneko hiru jardunaldietan. Gutxigatik baina guztietan bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Azkenean laugarren estropadan etorri zen lehenengo bandera, Donostiakoa. "Estropada batzuk irabaztea bezalako adinako garrantzitsuak izan ziren, eta horietatik, bigarren postu asko bandera irabaztea baino baliotsuagoak. Adibidez Elantxoben. Kalerik txarrena tokatu zitzaigun, estropada erdian gure txandako azkenak ginen 15 segundora, eta azkenean bigarren bukatu genuen, irabazlearengatik bi segundotara. Gure buruarengan eta lanarengan fedea izan genuen eta hori egitea lortu genuen".

Momenturik garrantzitsuenean kale egin zuten, baina. Azken aurreko jardunaldian, liga irabazteko borroka horretan, bosgarren sailkatu ziren Santoñan jokatutako estropadan. "Eremu berezian, norabide aldetik bi aukera genituen: A edo B. Bat aukeratu genuen eta ez zen erabaki ona izan. Barruan joan

ginenok bagenekien ez genuela gure bertsio onena eman. Momenturik txarrena izan zitekeen baina horrek hurrengo asterako, azken jardunaldirako, pilak jartzea ekarri zigun".

Etxeko estropadan ere zorterik ez zuten izan. "Prestatzen saiatu ginen, baina huts egin genuen eta hori estropada oso ona eginda. Orduan ere atzetik joan ginen, eta bigarren bukatu genuen, irabazlearengatik gertu. Pena izan zen".

Herriaren erantzun bikaina

"Nik behintzat herrian ez dut hitz egin arraunaz hainbeste aurten bezala. Honek esanahi du jendea interesatuta dagoela. Herrian ilusioa nabaritu dugu" aipatu du Eugeniok.
Azkeneko bandera eta liga egun berean irabazi zuten Pasaian. Getariatik bi autobus joan ziren animatzera. "Guk, kluba bezala, arraunlariei laguntza eman behar geniela pentsatu genuen. Orduan autobusak jarri genituen. Dohainik ziren, kondizio bakarra kamiseta marroiarekin etortzea zen".

Ongi etorria ere berezia izan zen egun horretan. Historian bigarren aldiz KAE 1 ligako txapeldunak izatea lortu zuen herriko traineruak. Jende andana zegoen mutilei animoak eta zorionak ematen. "Arraunlari batek esan zidan bezala: hau ez da munduko diru guztiarekin ere ordaintzen. Esaldi horrekin geratu nintzen" amaitu du Eugeniok.

Arraunlariak: Ez da sortu berri den talde bat, eta gainera, herriko arraunlari asko egoteak lagundu egiten du

Arrauneko Eibar taldea bezala definitu zintuzteten egunkari batean. Baina zergatik hasi zineten arraunean? Futbolean txarrak zinetelako?
Egoitz Mateos: Nire kasuan bai behintzat. Astira joan nintzen txikitan, eta han esan zidaten ez nuela futbolerako askorik balio. Koadrilako batzuk arraunean ibiltzen ziren, eta horrelaxe hasi nintzen. Jubenil mailan hasi nintzen, eta orain arte.
Jon Ander De la Hoz: Ni ere beste hainbeste. Utzi egin nuen futbola eta arraunean hasteko konbentzitu zidaten lagun batzuk.
Gaizka Gorostiaga: Bai, gu ere lagun koadrilan joan ginen Zarautza. Han lau bakarrik hartu zituzten eta probatzera arraunera etorri nintzen.
Ander Etxegoien: Azkenean, futbola da gehien saltzen den kirola, txikitan ere hori hasten zara egiten, bai eskolan baita denbora librean ere. Baina beno, ni ez nintzen inoiz futbolean hasi. Banekien hasieratik txarra nintzela (barrez).

Ez al zitzaizuen gehiegizkoa iruditu zuei Eibarrekin konparatzea?
Egoitz Mateos: Badakizu, egunkariek ere zerbait jarri behar dute, exageratu. Baina beno, gu bakarrik ez gara Eibarrekin konparatzekoak. Gure ligan, KAE 1ean, Eibar moduko talde asko daude.
Ander Etxegoien: Zer konparaketa da? Klub txiki batek bigarren mailako liga irabazi duela. Horretan bilatu dute antzekotasuna, azkenean.

Getaria eta Zumaia nor baino nor. Cambridge-Oxford arteko estropadetan bezala ibili zarete. Azkenean zuek garaile.
Jon Ander de la Hoz: Keba, Zumaian eta kalean beharbada pike hori izango zuten baina guk ez. Beraiek zerbaiti heldu behar eta guri heldu digute. Baina ez da gure gerra izan.
Gaizka Gorostiaga: Nik behintzat ez dut sentitu aurkari zuzena Zumaia izan delako zerbait berezia. Zumaia edo Lekeitio izan aurkaria, berdin izan zait.
Ander Etxegoien: Ba niri ez. Aldameneko herrikoei irabaztea

1

2

beti da handiagoa.
Egoitz Mateos: Galtzeak izorratu egiten du, eta zumaiarren kontra bada oraindik eta gehiago.
Ander Etxegoien: Normala da aldameneko herriarekin amorrazio gehiago izatea.

Zuek laugarren jardunaldian irabazi zenuten lehenengo bandera, eta beste hiruretan bigarren izan zineten Zumaiarengatik segundo bat edo gutxiagora.
Gaizka Gorostiaga: Banderak hain gutxigatik ihes egitean, eta Zumaiak irabazten zituela ikustean bai sortzen joan da pike hori denboraldian zehar. Hori egia da. Baina Lekeitiok ere irabazi ditu banderak eta gu orduan ere haserretzen ginen.
Jon Ander de la Hoz: Pikea gehiago sortu da kalean gure artean baino. Esan izan digute: Zumaiari irabazi e!
Gaizka Gorostiaga: Bestela guk harreman ona daukagu eurekin.

Zer moduz eramaten zarete zuen artean?
Ander Etxegoien: Oso ondo eramaten gara. Urte asko goaz arraunean batera, eta gainera, getariarrak garenok, txikitatik ezagutzen gara elkar.
Gaizka Gorostiaga: Tolosatik eta Oriotik etorri direnekin ere ederki moldatzen gara.
Egoitz Mateos: Ez da sortu berri den talde bat, eta gainera, herriko arraunlari asko egoteak lagundu egiten du. Ni adibidez beste talde batzuetan arraun egindakoa naiz, eta hemen dagoen lotura hori ez dut ikusi bestetan. Hemen entrenamendua bukatu eta gero hamaiketakoa egiten dugu, edo zerbait hartzera joaten gara denok batera… ezberdina da.
Jon Ander de la Hoz: Kalera atera eta beti ikusiko dugu taldekoren bat, eta hizketan geratuko gara. Azkenean koadrila bat bezala bihurtzen gara.

Rugbyan bezala, zuek ere hirugarren denborak izaten dituzue orduan.
(Guztiak barrez)
Egoitz Mateos: Hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena ere bai. Batzuetan plan berdinak egiten ditugu, bai.

Udaran esaten den bezain "izorratuta" pasatzen duzue?
Gaizka Gorostiaga: Egun batzuetan bai, baina niri negua gogorragoa egiten zait.
Ander Etxegoien: Nire koadrilakoak herri bateko festetara joaten direnean inbidia puntua izaten dut, beti izorratzen dizu zerbait, baina beno.
Egoitz Mateos: Dagoeneko parranda aldetik ez dut inbidia askorik pasatzen. Gaizkaren edo Jon Anderren adina nuenean gehiago izorratzen zidan adibidez.
Jon Ander de la Hoz: Niri ere parranda ez egiteak ematen dit pena gehien. Baina estropadara joatean dena pasatzen zaizu, eta oraindik gehiago irabazi ezkero.

Zuen familia, lagunak, bikoteak… ez al dute beraiek ere uda "izorratuta" pasatzen?
Egoitz Mateos: Dudarik gabe. Asko jasan behar izaten dute.

Zerk motibatzen zaituzte?
Gaizka Gorostiaga: Bandera irabazteko grina horrek. Estropadan zoazela eta patroiak esaten dizunean gertu dugula bandera, oraindik eta gehiago motibatzen gara. Negua gogorragoa da, eta zailagoa motibatzeko.
Egoitz Mateos: Arraunak hori du txarra. 8-10 hilabete prestatzen, 2 hilabetetan bakarrik lehiatzeko. Futbolean adibidez alderantziz da.

Bandera irabazi zenuten guztietan herriaren ongi etorria izan zenuten.
Jon Ander de la Hoz: Bai, hala da. Oso politak izan ziren. Gainera bat, Ondarroan irabazi genuena, herriko festen azken egunarekin tokatu zen. Izugarria izan zen hori. Portutik hasi ginen igotzen herrira. Artzape parean jende pila bat zegoen… Azken aurreko ongi etorria ere berezia izan zen, banderaz gain, liga irabaztearen ospakizuna egin baikenuen.

PLAY OFF-EKO SAILKAPENA

1. MEIRA 8 puntu
2. GETARIA 6 puntu
3. ZUMAIA 4 puntu
4. AMEGROVE 2 puntu

Argazkiak:

1. **Jon Ander de la Hoz, Gaizka Gorostiaga, Ander Etxegoien eta Egoitz Mateos.**
2. **Zaletuak Play off-ean Portugaleten.**
3. **Ibaizabaleko uretan, denboraldiko azken estropada.**

argazki txokoa
Salbatoreak

△ EUSKAL HERRIA EGUNA

Abuztuak 5: frontoian, koadrillen arteko IV.Euskal Zorolinpiadak.

Argazkia: Izaskun Urbieta.

△ SALBATORE DEUNAREN EGUNA

Abuztuak 6: plazan, Poxpolo ta konpainia.com ikuskizuna.

Argazkia: Udala.

△ ELKANOREN LEHORRERATZE EGUNA

Abuztuak 7: Ze Esatek!

taldearen kontzertua, frontoian.

Argazkia: Udala.

△ JAN FESTA EGUNA

Abuztuak 8: CASTELLERS ikuskizuna frontoian, Falcons de Villafranca taldearekin.

Argazkia: Udala.

△ KOADRILEN EGUNA

Abuztuak 8: Koadrilen arteko XVIII. MARMITAKO-TXAPELKETAn prestatatutako marmitako goxua jaten Harritarten. Ondoren, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK kantujiran Harritarten, herrikoen partaidetzarekin.

Argazkia: Udala.

Salbatore jaietako argazkiak behar ditugu, baldin badituzue eskertuko genuke artzape@topagunea.com-era bidaliko bazenituzte.

△ ARGAZKIA: Izaro Uzin

△ ARGAZKIA: Izaro Uzin

△ ARGAZKIA: Izaskun Urbieta.

▽ ARGAZKIAK: Izaro Uzin △ ▽

ELKANOREN LEHORRERATZEA - argazki gehiago gure Facebook orrialdean jarriko ditugu

△▽ARGAZKIAK: Izaro Uzin

2002-2003. urtean bukatutzat eman zen Urritza Aisialdi Taldea. Ordutik ez da antzeko talderik egon herrian. Hala, zazpi gaztek taldea berpiztea eta beraien artean antolatzea bururatu zaie. "Umeek eta gazteek imajinazioa lantzea eta ekintzetan parte hartzea nahi dugu" aipatu dute. Azkenean, gaur egungo umeen eta gazteen teknologiaren gehiegizko erabilpena izan da taldea berpizteko xedeetako bat. **"Guk txikitan disfrutatzen genuen bezala, kalean, jokoak asmatzen... ongi pasa dezaten nahi dugu"**. Ilusiorik eta gogorik ez zaie falta, eta aurreko Urritzako partaideei eskerrak eman nahi dizkie hasiera honetan laguntzeagatik.

Ainitze Gereka, Eneko Miralles, Iker Aldalur, Ainhoa Manterola, Leire Etxeberria, Maialen Urbieta eta Saioa Martinez de Lahidalga dira taldea osatzen duten begiraleak.

Maialen Urbieta falta da taldeko argazkian.

Urritza Aisialdi Taldea

Herriak oso erantzun ona eman digu; gero eta gehiago ezagutzen gaituzte eta umeak ere errazago uzten dizkigute

Apirileko aldizkarian eman zenuten elkartearen berri. Ordutik hona zein ibilbide egin duzue?
Gure lehen helburua taldea sortzea izan da. Horretarako, hilabete hauetan, paper guztiak txukun jartzen ibili gara batik bat. Izan ere, aurretik bazegoen Urritza Aisialdi Taldea baina aldaketen berri eman behar izan dugu erregistroan. Orduan, izen aldaketak egiten, zuzendaritza talde berria osatzen… jardun gara.

Iraila hasieran hala ere, eskulanen egun bat egin zenuten.
Katrapunan antolatu genituen eta uste baino hobeto atera zen. Azkenean material gabe eta guzti geratu ginen. Horretaz gain, San Juan festetan, antolatzaileek arratsalde batean umeentzako jolasak antolatzea eskatu ziguten. Orduan ere ume pila bat etorri zitzaizkigun, eta gu oso pozik.

Zein adineko umeak etorri zitzaizkizuen?
Batez ere 2-3 urtetatik hasi eta 11-12 arte. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeak etorri ziren.

Orain arte herriko taldeei laguntzen ere ibili zarete.
Hori da. Laguntza eskatu digutenean, bertan egon gara. San Juan festetan bezala, Guraso Elkarteak pintura eguna antolatu zuenean, Gaztelekuari laguntzen… Eta behar gaituzten momentu guztietan ere egongo gara. Azken finean elkarlana bultzatzea da gure nahia.

Zein ezberdintasun dago Gaztelekua eta zuen artean?
Adina, batez ere. Azken finean bertara DBHn dauden gazteak joaten dira. Gaztelekukoak lagunak ditugu, harreman oso ona daukagu, eta beraiek ere guregan interesa dutela azaldu digute. Badakite guk zer egin nahi dugun, zein den gure helburua, gure baliabideak… eta lehen esan bezala, elkarlanera irekiak gaude. Beraiek animatu ziguten aisialdiko titulua ateratzera, eta orain joaten diren gazteei ere animatzen die. Azkenean, guk jende gehiagoren beharra ere izango dugu.

Programazioa batez ere ikasturte berriari begira antolatzen hasi zarete.
Hala da. Hurrengo udaleku irekiak eta itxiak antolatzea da gure nahia. Horretarako ordea, Udalari programazioa eta presupuestoa eman behar diogu orain. Beraiek ere 2015eko aurrekontuetan sartzeko, jakina.

Udara oraindik urruti dago eta datozen hilabeteetako zer duzue pentsatuta?
Gure helburua hilabetean behin edo bi asteburutan ekintzak antolatzea da. Mendi irteerak, eskulanak, jolasak…

Herriaren partez erantzun ona izan duzue?
Bai, oso ona. Gero eta gehiago esango genuke. Azken finean gurasoek ere konfiantza handiagoa dute guregan, gehiago ezagutzen digute, eta umeak errazago uzten dizkigute. Gainera jendeak guregan interesa duela erakutsi digu eta galdetzen digute ea zein talde garen, zein den gure helburua…

Zozketa eder bat ere antolatu zenuten dirua lortzeko.
Materiala erosteko dirua behar genuelako egin genuen. Hutsetik hasi gara, ez genuen ezta arkatz bat ere. Zumaiako udalekuetan sobratu zitzaien materiala erabili dugu hasiera batean, baina ez da nahikoa. Guk gure materiala erostea nahi dugu eta horretarako antolatu genuen zozketa. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu gainera boletoak erosi zizkiguten guztiei eta saria eman ziguten San Anton eta Izarriri.

Zein izan da orain arte izan duzuen oztopoa?
Hasiera denez, ondorioz planifikazio zehatza ere ez dugunez, antolatu ditugun ekintzak nahiko espontaneoak izan dira. Alegia, ez dakigu zenbat ume eta zein adinekoak etorriko zaizkigun, ezta daukagun materiala gehiegi edo gutxiegi den, zein ohiturak dituzten… Hasiera guztiek dute zailtasuna eta hori bideratzen ari gara pixkanaka. Ikasten.

Norbaitek zuekin kontaktuan jarri nahi badu, nora joan behar du?
Ez dugu leku fisikorik, lokalik. Baina badugu facebook orrialdea, eta bertatik ebentoak bidaltzen ditugu eta gure ekintzen berri jartzen dugu. Hala ere, Getarian ondoen funtzionatzen duenak ahoz ahoko komunikazioa da.

https://www.facebook.com/urritza.aisialdielkartea

Urritza sortu zenean erabiltzen zuten logotibo bera erabiltzen jarraitzen du belanauldi berriak.

Itsasora Begira

Nork ez ditu orduak eman itsasora begira? Kostaldean bizi direnek sarritan egiten duten zerbait dela esan daiteke. Ziur behin baino gehiagotan beren begiak itsasaldera bideratu dituztela konturatu gabe eta zerumuga denbora batez aztertu eta gero harrapatu dutela beren burua itsasora begira. Naturaltasun osoz egiten den eta egunerokotasunaren parte den zerbait bezela.

Kostaldean zehar itsasoa miresteko toki ugari aurki ditzakegu, baina talaiak horretarako gune bereziak dira. Euskal kostaldea zipriztintzen duten talaia eta seinero postuek itsasoan gertatzen zenaren komunikaziorako azpiegitura paregabea osatzen zuten. Itsasoan, kostaldean, portuetan eta itsasadarretan gertatzen zen guztiaren informazioa lortzeko kokagune estrategikoak ziren. Bertako talaiariak igortzen zuen informazioari esker zen posible portuetako eta itsas bokaletako nabigazioa, baita eguraldi aldaketen aurreikuspena, itsasoko trafikoaren ezagutza eta arrain multzoak antzematea ere.

Getaria ere komunikazio sare horren barruan zegoen, baina ez hori bakarrik, komunikazio sare horretan kokagune pribilegiatua zuen. Getariako talaia sistema bi gune desberdinek osatzen zuten: San Anton mendiko eta Malkorbe badiako talaiek, azken hau Lasuntalaia izenez ezaguna. Bietan garrantzitsuena San Anton mendiaren muturrean kokatzen den talaia zen. Bertatik Matxitxako eta Higer lurmuturren arteko portu guztien bokaleak dira ikusgai. Ikuspen pribilegiatu honi esker getariarrek informazio baliotsu ugari izan dute beti esku artean; kostaldearen zati horretan gertatzen zen guztiaren jakitun bihurtzen zituen. Horrek, beste portuekiko, abantaila handia suposatzen zuen.

Bestalde, Lasuntalaiak ikuspen txikiagoa eskaintzen zuen. Hori kontutan izanik, Malkorbe badian burutzen zen arrantzarekin lotura zuzena izan duela pentsa daiteke. Are eta gehiago, Behe Erdi Aroaz geroztik Getariako Udalbatzak badian arrantzan egiteko eskubidea enkante publikoan ateratzen zuela kontutan izanik. Beraz, talaia honek badian sartzen ziren arrainen berri hemateko balioko zuen ziurrenik.

Tradizio handiko elementuak izaki, XX. mendean ere garrantzia izaten jarraitzen zutela ikus daiteke artxiboko dokumentuetan. Besteak beste, 1916. urtean San Anton mendiko talaia berria eraikitzeko egitasmoaren berri ematen duten agiriak topa daitezke. Baita 1966. urtean Lasuntalaiarako bidea hobetzeko lanak burutu zirela ere. Dirudienez, urte horretan talaiarako bidea oso egoera txarrean aurkitzen zen luizien ondorioz.



Marrazkia: Manuel Fernandes.

Getariarrek hori ikusita, bidea konpontzeko erabakia hartu zuten eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ingeniaria zen Jose Maria Gabarain jauna izendatu zuten lan horien arduradun. Agirian jartzen duenez gainera, lan hauek Lasuntalaiarako ibilbide berri bat sortu zuten.

Talaia hauek ezinbestekoak izan dira Getariaren historian. Nabarmena da, bai San Antongo talaia, bai Lasuntalaia informazio iturri garrantzitsu izan direla. Eta, gaur bezala, orduan ere informazioa botere zen. Horretaz jakitun, talaiak eta horietara iristeko bideak zaintzeko ardura erakutsi dute beti getariarrek.

herriko toponimia / Andres Alberdi

Ubiri / Ubide(a)

Ubideko senotia izenarekin ageri da paraje hori Euskaltzaindiaren onespenarekin Getariako Udalak 2013an argitaratu zuen *Getariako mapa toponimikoan*. **Ubideko senadia** edo **Ubideko badia** izena egokiagoa zen beharbada. Argazkian ondo ikus daitekeenez, Getariak eta Zarautzek muga egiten duten inguru zabala da.

Ubiri esaten diogu ahozko tradizioan toki horri bai getariarrok bai zarauztarrek (***Ubiri***n izan naiz; ***Ubiri***tik nator…). **Ubidea** forma edo aldaera erabaki da, ordea, modu idatzi ofizial gisa (konparazioz, **Getaria** idazten dugun baina **Getaŷa** esaten dugun bezala). Ubirik zein Ubideak, biek, gauza bera aditzera ematen dute: ***u(r)+ bide(a)*** (uraren kanala, erretena, bidea). Euskal Herriko paraje askotan ageri den toponimoa (toki-izena) da.

Aldaketa fonetikoei begiratuz gero, lehen elementuko **ur- > u-** aldaketa hori (-r- galtzea, alegia) oso ohikoa da toponimian (Ubitarte/Urbitarte, Uberoaga/Urberoaga, Umendia/Urmendia, Uzelai/Urzelai…).

Beste aldaketak molde idatziaren eta ahozkoaren arteko aldeak baino ez dira. Ahozko moldeko aldaketa normalak daude hor: ubid**E**(a) > ubid**I**(a)> ubi**R**i(a).

Ubid**E**(a)>ubid**I**a aldaketan beste hauetan gertatzen dena dago: kal**e**a>kal**i**a, etx**e**a>etx**i**a…

Ubi**D**i(a)>ubi**R**i(a) aldaketan, berriz, beste hauetan ikusten den alternantzia dago, idatziz ala ahozkoan ari garen: agu**d**o/agu**r**o (joan), e**d**an/e**r**an (ardoa)…

txikiegia agian / Amaia Irazabal

Ateak ireki eta itxi egiten dira.

Horrelakoak dira ateak,

nonbaitetik atera eta norabait sartzeko.

Nik banituen bi ate,

zabalik zegoena eta itxita zegoena.

Itxita zegoena zabaltzera joan nintzen,

jakin-minez,

zabalik zegoena itxi baino lehen.

Orduan haizea harrotu zen.

Zabalik utzi nuena ixtera joan nahi nuen.

Baina zabaldu nuena haizeak itxi ez dezan

eusten jarraitzen dut.

Naturarekin bat eginik, harremanetan jarri

Mendiaren mintzoa norbaitek inoiz entzun badu, sekula ez du ahaztuko. Tibetar atsotitza.

Mikel Laboaren abestiak dio: *"… Gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea, naturarekin bat egin eta harremanetan jartzea…"* Ba, kantu hori aipatuz mendiari lotuko natzaio gaurko idatzian. Nola ez ba, euskaldunok beti izan baitugu mendizaletasuna. Mendira txango bat egitera joatea edo gailurretara igotzea gizakiak natura ulertzeko eta hartaz gozatzeko duen joera bat da, eta euskaldunon kulturan beti egon da itsasia mendiarekiko maitasuna; eta asko dira ausardiaz munduko mendi garrantzitsuenak igo dituzten mendizale ospetsuak. Hori delaeta, Euskal Herriko herri gehienetan egon badaude mendi irteerak antolatzen dituzten mendi-taldeak.

Zergatik joan edo igo mendiak? Hor daudelako, besterik gabe. Garai batean ibilgailuentzako biderik ez zegoenean, dena zen mendi, baso, oihan, ibai... eta natura hortxe geneukan gure aurrean, aldamenean, gozatzeko zain. Orain, aldiz, gaurko gure munduan autoentzako, trenentzako… errepidez beterik ditugu bazter guztiak, eta mendia eta itsasoa bihurtu zaizkigu babesleku, naturarekin bat eginda, babesturik sentitzeko eta oreka bilatzeko dauzkagun tokirik aproposenak. Izan ere, mendiak badu zerbait, eta itsasoak ere bai noski, beste ezerk ematen ez dizuna. Gainera, oso leku egokia da gogoeta egiteko nahiz norberaren kontzientzia aztertzeko. Modu batera edo bestera, bakarrik aurkitzen zara naturaren aurrean, bertan murgildurik, eta orduan jabetzen zara deus gutxi zarela munduan.

Mendira lasai zoaz ibilaldi bat edo gailur bat helburu duzula. Pauso txikiak eta ziurrak emanez mendian geroz eta gorago zoaz, aire garbia arnastuz eta birikak garbituz. Pixkanaka hobeto sentitzen zara, burua askeago, nahiz eta nekea ere zugan jabetuz doan orduak igaro ahala. Baina azkenean, konpentsazio bat dakar horrek denak, diruarekin ordaintzerik ez dagoen konpentsazio ederra. Atsegingarri pertsonala eta ispiri tuala handia da orduan, garapen fisiko eta mentalerako ezin hobea.

Naturan barneratzen zarenean, bere magalean hartzen zaitu, haur abandonatuaren antzera, eta bere eragina osasun aldetik erabatekoa da. Mendian dena da ezberdina, ez da gizartea bezalakoa; garbia da, zintzoa, gogorra, eta bere arauak ondo finkatuak ditu, itsasoaren antzera. Han ez dago gizarte - mailarik, berdinak gara denok. Jendea libreago sentitzen da eta lasaiago; solidarioa da, laguntza emateko prest egoten da, eta askotan, kalean ditugun baloreak beste modu batera ikusten dira: elkartasuna, laguntasuna, aldarte ona, umorea eta komunikazioa erraz azaleratzen dira.

Bada, Getarian ere badaramagu lau bost bat urte mendiko irteerak antolatzen. Hasiera batean jende andana ibiltzen ginen eta orain pixkanaka gutxiago bagara ere, familia bat osatzen dugu. Urtean zazpi bat irtenaldi egiten ditugu : hilero 5 edo 6 orduko ibilaldiak izaten dira eta astebururen bat ere bai kanpora, urrutirago, mendi handiagoak egitera. Denok lagun giro jator eta alai batean ibiltzen gara, eta garrantzitsuena dena, lehen aipatu dudan giro solidarioan, beti aldamenekoari laguntzeko prest, gaizki doanari itxaroten, egarriak norbait badago hari ura ematen, jana ematen, babesa ematen... Eta nola ez, txantxak egiten eta adarra jotzen ere bai, noski, baina beti ere gizalegez eta jatortasunez. Giro alaia eta ederra sortzen dugu denok batera, eta aipatu bezala familia handi bat osatzen dugu. Izan ere, lehen esan bezala mendian, edo naturarekin harreman zuzenean, loratzen dira ezaugarri horiek.

Bestalde, batzutan une gogorrak ere bizi daitezke gutxiena espero duzunean. Adibide bat jartzearren, orain ia hiru hilabete hori guztia ikusteko parada izan genuen, taldean gertatu zitzaigun ezbehar baten aurrean. Halere, txalotzekoa izan zen talde osoaren portaera. Denek lagundu zuten zoritxar haren aurrean eta benetako gizatasuna ikusi izan genuen jendearen jarreran. Bejondeizuela denoi. Jarraitu horrela.

Ahalegina, haitzak eta haizea baino lehenago adiskidetasuna da garrantzitsuena eta ezinbestekoa mendian. Geyson Millar.

elan euskadi
ONGD - GGKE

EBOLA BIRUSA: Uda honetako suge informatiboa

Uda honetan Afrikatik etorritako informazioak izutu egin gaitu: berriro ebola birusa agertu da modu botitzean eta inolako kontrolik gabe. Hedabideek, Afrikako hainbat herrialde (Liberia, Sierra Leona, Ginea, Kongo...) larrialdian daudela kontatzen digute irudi izugarriak erakutsiz. Mediku eta erizainen irudiak ikustean edonork pentsa lezake extralurtarrak iritsi direla Afrika erdira abdukzioak egitera. Gainera, espaniar misiolari bat Madrilera eraman behar zuten birusa zuelako. Madrilgo aireportutik hospitalera lekualdatzearen irudiek arriskua azpimarratzen zuten. Zalantzarik gabe, mediku eta sanitarioen janzkerak beharrezkoak ziren baina aldi berean informazioaren tonuak espektakuluaren ikutua zeukan.

Hala ere, hedabideek emandako irudi horiek non medikuak oso babestuak agertzen diren, pobreziarekiko mantentzen dugun harremana metafora baino ez dela adierazten digu. Cesar Rendueles, Complutenseko filosofia katedradunak oso argi adierazten du bere azken saioan: "Jendeak uzten du mendebaldeko bizi-itxaropenak baduela zerikusirik medikuntza eta farmakolojiaren aurrerabideekin, hala ere, heriotzaren kontrako armarik onena estolderia izan da. Estoldak eta zisternak funtsezkoak izan dira mundo alde honetan. Bitartean, bi mila miloi eta erdi pertsonak euren gorotzetan, literalki, hondoratuak bizi dira saneamendu-sarerik gabe, ez kloakarik, ez komunarik, ez putzu beltzik ezta ezer ere. Egoera hau izugarria izaten ari da Kinshasa bezalako hirietan. Azken hamarkadan, beherakoa dela ume pila hil da bigarren gerra mundialean baino gehiago. Hirugarren munduko hirietako inguru degradatuak – megaslums deitutakoak- XXI. mendeko arazo koloniala da, politika liberalaren ondorioak".

Anthony Fauci, EEBBetako Alergia eta Gaixotasun infekziosoen Instituto Nazionaleko zuzendariak esan du: "Ebolaren kontrako txertoaz lan egiten ari gara eta emaitzak oso onak dira baina empresa farmazeutikoek ez dute inolako interesik" . Beste era batera esanda: etekinik gabe ez dago txertorik.

John Ashton, Erresuma Batuko Osasun Publikoaren Fakultateko zuzendariak *The Independent* egunkarian idatzi zuen bezala, " Industria farmazeutikoaren jarrera eskandalua da, bere borondate ezak kapitalismoaren porrot etikoa suposatzen du".

Ebola birusari buruz informazioa lortzeko:
http://www.sinpermiso.info/textos/index.php?id=7235

> URRIKO AGENDA ETA -- DENBORAPASAK

> URRIAK 1, asteazkena

●UDALA INFORMATZEN
19:00etan, pleno aretoan, 20:00etan, alondegian.

●EUSKAL EZKONTZAren antolaketa-bilera.
Parte hartu nahi duten herritarrak gonbidatzen ditugu.

> URRIAK 2, osteguna

●ODOL-EMATEA.
19:00etatik 21:00etara,
Lekua: Getariako Osasun Zentroa.
Antolatzailea: Gure Txeru.

> URRIAK 5, igandea

●KILOMETROAK 2014.
Orio. Gipuzkoako ikastolen jaia. Orioko Herri Ikastola – "ERRIA TXIKOTA!".

> URRIAK 11, larunbata

●GETARIAKO XI. SURF ETA BODYBOARD TXAPELKETA HERRIKOIA.
Mailak: Surf modalitatean: open, master.
Body modalitatean: open Long board.
Izena ematea:
Gehienez bi kategoritan: bakoitzarenean eta openean.
5 € bakoitzak.
Urriaren 6tik 10era, arratsaldeko 6etatik aurrera, Gaztetapeko lokalean.
Oharra: Itsasoaren egoeraren arabera antolatuko da txapelketa *** Txapelketaren ondoren, sari banaketa.
Antolatzailea: Getariako Gaztetape Surf Elkartea.

> URRIAK 12, igandea

●Urriko MENDI-IRTEERA: AUTZA MENDIA (Behe Nafarroa).

●KOSTALDE BALEADA: Ibilaldi kultural eta gatronomikoa. Euskal kostalde osoa lotzen, gure kultura, hizkuntza, balearen eta Ternuak istorioak ardatz hartuta.
Ibialdia, Zumaian hasiko da, Getaria, Zarautz eta Orion barrena Zarautzen bukatzeko.
Prezioa: 25€.
Izen-ematea: MAISOR dendan.

●PINTURA EGUNA
11:00etatik 13:00etara, Berdura Plazan.
Antolatzailea: Guraso Elkartea.

> URRIAK 16, osteguna

●IRATXE-ra IRTEERA
Antolatzailea: Arrantzale Zaharren Elkartea.

> URRIAK 16, osteguna

●URRIKO PROIEKZIOA
Elan Euskadi-k antolatuta.
Ordua: 19:00.
Lekua: Alondegia

> URRIAK 18, larunbata

●Getaiko Gaztetxian, 22:00etan, NoiZNaHi! 014 FESTA!
VAZ (Noise-Rock, New York-AEB), BORROKAN (Noise-Rock, Bera), KILLERKUME (Noise-Rock,Bilbo).

> URRIAK 19, igandea

●NAFARROA OINEZ 2014.
Zangoza. Zangozako Ikastola "ESAN IZAN GOZAN!".

> URRIAK 30, osteguna

●18:30ean, KATUKALE irakurle-taldearen saioa, Saiaz Hotelean.
Paul Auster-ren "Sunset park" liburua landuko da.

> IKASTAROAK, TAILERRAK

Getariako Udalak antolatutako ikastaroak:

●EUSKARA IKASTAROAK (EGA eta HASIERAKO MAILA).

●PINTURA TAILERRA.
Bilera-eguna: urriak 1, 19:00etan, alondegian.

●KATUKALE irakurle-taldea.

●MUSIKA ESKOLA: tailerrak eta musika tresnak.

●AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA:
Eguna: Urriak 18, larunbata
Izen-ematea: 943896024 / gizartekintza@getaria.org

●PILOTA, EUSKAL DANTZAK, ESKULANAK.
Hasiera: urria. Gure Txeruk antolatutako ikastaroak.

●GURASO ESKOLA
Ikastaroaren ezaugarriak:
Bi talde mugatu izango dira.
Ikastaroa egiteko, gutxieneko kopurua beharko da (12 pertsona).
Seme-alaben adinaren arabera antolatuko dira bi taldeak (0tik 8ra eta 9tik 12ra), bakoitza bere ordutegiarekin.
9 saio ordu eta erdikoak
Saioen ordutegia: 14:30tik 16:00etara (0tik 8 urteetara)
18:00etatik 19:30etara (9tik 12 urteetara).
Eguna: Asteazkena.
Lehen eguna: urriak 22.
Nork emanda: Amaia Vázquez Eguzkitza, psikologian lizentziatua.
Lekua: Iturzaeta Herri Eskola.
Izena emateko epea: urriaren 8a (eskolan edo udaletxean) edo www.getaria.net

> SAHATSAGA KIROLDEGIA

Izen-ematea eta informazioa: 943140432
kirolgune@hotmail.com
*** HAURRAK KIROLA EGITEKO AUKERA… Urriko lehenengo astea doan!!!
ZUMBA (7-14 urte), asteazkena eta ostirala (19:00-20:00).
GIN-JAZZ (4-14 urte), astelehena eta asteazkena (17:00-17:45).
JUDO (4-8 urte), astelehena eta asteazkena (16:30-17:30)
KENPO-KAI (4-14 urte), astelehena eta asteazkena (18:00-19:00).

> GAZTELEKUA

Ordutegia: ostirala, 17:00-20:00 // larunbata, 16:30-19:45 // igandea, 16:30-20:00.

URRIAK 4 - 5: PROIEKTUA: HEZKIDETZAN LIGATZEN
URRIAK 10: 2002. urtean jaiotakoen gurasoekin ezagutze bilera gaztelekuan, 19:00etan.
URRIAK 11 - 12: TAILERRA: LIBURU MARKATZAILEAK.
URRIAK 18: IRTEERA: 2002. urtean jaiotakoekin TXURI URDINera.
URRIAK 25: FIFA TXAPELKETA.

> BALENCIAGA MUSEOA

●TINDAGAI NATURALAK
Tindagai naturalez tindatzeko ikastaro teoriko-praktikoa.
Datak: Urriaren 3tik 5era
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 15:30-19:30.
Irakaslea: Ana Roquero.
Izena eman beharra dago plaza-kopuru mugatua.
Informazio gehiago:
943 00 88 40-943 00 47 77
edo info@fbalenciaga.com
www.cristobalbalenciaga-museoa.com

●IKASTETXETARAKO HEZKUNTZA PROGRAMA
2014-2015 IKASTURTEA
2014ko urritik 2015eko ekainera bitartean. Goizez.
- Haur-Hezkuntza.
- Lehen-Hezkuntza.
- Bigarren-Hezkuntza.
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.
Hizkuntzak: Euskara eta gaztelania. Jarduerak, eskatuz gero, frantsesez edo/eta ingelesez egiteko aukera dago.
Prezioa taldeko: 65 € bisita dinamizatuek eta 80 € bisita-tailerrek; irakasleak doan sartuko dira. Taldeak gehienez ere 25 ikaslekoak izan beharko dira.
Izena-ematea beharrezkoa da.
Informazio gehiago eta izen-emateak:
Tel. 943 0048 88
@. didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com

-- HITZ SOPA

Herriko kale eta auzoak **- 10 hitz -**

A	U	N	M	O	L	U	R	S	K	N	Y	E	H	W	E	O
E	F	E	Q	L	P	B	E	T	K	A	W	E	M	O	L	C
I	C	T	B	M	Z	B	E	E	H	A	N	P	Z	B	E	J
L	T	J	S	E	A	P	L	D	H	H	A	E	Z	W	W	W
A	S	K	I	Z	U	G	K	B	U	E	G	Y	K	Y	U	H
I	L	D	U	E	Y	B	A	E	A	E	U	Z	Y	E	A	A
A	T	D	O	P	X	V	N	L	U	G	S	M	E	V	V	I
E	X	K	A	A	J	P	O	P	L	B	I	O	Z	Q	I	T
X	F	A	Z	M	O	H	Q	O	A	A	A	E	H	O	E	V
V	F	A	U	O	A	W	O	T	T	R	N	N	I	A	E	K
U	U	E	J	E	Y	R	X	Z	U	R	A	E	O	Z	Y	D
A	J	Y	F	Y	M	Y	X	U	R	C	T	G	S	K	T	X
A	K	E	R	R	E	G	I	A	M	H	T	E	Q	U	K	F
I	E	R	R	U	E	R	A	G	D	V	K	Q	G	G	U	A
S	A	H	A	T	S	A	G	A	D	I	A	J	P	U	I	F
T	A	G	A	O	O	F	H	E	R	R	E	R	I	E	T	A
O	Y	S	E	B	G	X	I	T	Z	V	O	E	V	W	G	M

-- SUDOKUA

		8	9			7	2	
		9		1			4	
	1	4			2	5		
					6			
	4	7						
6		3	5	4		9		2
		5		9	3	2		
		6		2			7	
			6	7	5			4

Soluzioak urriko alean jarriko ditugu.

herriko gutixiak

Josune Lazkano
Politena Jatetxea

Olarrua plantxan

4 lagunentzako

Osagaiak:

Olagarro txiki bat

2 patata

gurin goilarakada handi bat

esne txorrotada bat

limoi bat

gatz larria

oliba olioa

baratzuri ale bat

perexila

piperrautsa

1. Olagarroa egosi ordu erdi batez (tamainaren arabera, 3,5kg-ko olagarro batek ordubete eta laurden behar izaten du)

2. Patata purea egin: 2 patata, gurina, esne txorrotada bat eta gatz apur batekin.

3. Ozpin - olioa (binagreta) : Oliba olioa, baratzuri ale bat eta perexila xehetu eta limoi baten zukua. Guztiak nahastu.

4. Plantxa bero-beroan olio apur batekin olagarroa erdibituta jarri eta ondo markatu bi aldetatik. Ozpin - olioa eta gatz larria bota.

5. Platerean purea jarri, piperbeltz pixkat bota eta olagarroari ozpin - olioa (binagreta) gehitu. Amaieran piperrautsa jarri platera apaintzeko .

Jateko goxo-goxua

eta errexa prestatzeko.

zorion agurrak



Jon Ander de la Hoz eta Izaskun Larrañaga
Irailak 2 eta 22

Zorionak lan talde guztiaren partez.

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testuatxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta artzape@topagunea.com-era bidali. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4€ ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa	943 896 024
Faxa	943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*	
Kiroldegia	943 140 432
Kirol-portua	943 580 959
Taxiak	
Javier	607 720 242
Carlos	607 403 498
Udaltzaingoa	943 896 146
Liburutegia	943 896 147
Anbulatorioa	943 140 653
Botika	943 140 441
Herri Eskola	943 140 729
SOSdeiak	117
Kofradia	943 140 200

FULDAIN FARMAZIA-ren zaintza egunak: urriak 6tik 12ra (biak barne)

Getaria AUTOESKOLA
Herrerieta 23 Behea
Tel: 943 140 301
ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Egin zaitez harpide! urtean 22€

Getaritik kanpo jaso nahi baduzu 27€

943 000 548

artzape@topagunea.com

Txeruko postontzian

artzape aldizkaria

Izen abizenak:.....

Helbidea: .....

Kontu korrontea: .....

Banketxea: .....

Telefono zenbakia: .....

Emaila: .....